

# EVSKITZ

EVSKARAREN NONDIK NORAKO BITXIA



IBAIZABAL

*Juan Manuel Etxebarria*

# EUSKITZ

EUSKARAREN NONDIK NORAKO BITXIA

*Juan Manuel Etxebarria*



IBAIZABAL

## HITZAURREA

*Euskitz, euskaldunon jatorrizko hizkuntza zaharra dugu, gutxienez preindoeuropeoa. Euskaldunontzat garrantzi handienekoa da gure geure hizkuntza delako eta euskaldun ez direnentzat ere garrantzitsua Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa izanik, oztopoak oztopo, oraindik bizirik eta biziago egoteko bidean dagoelako.*

*Liburu honetan, Euskitz izenpean, euskararen nondik norakoa kontatzen zaizu baina modu original batean. Irakurri eta ikusiko duzu!*

*Euskal Herria txikia izan arren, herri osoa da eta garaian garaiko beharrianetarako hizkuntza osoa erabili du. Historian zehar, inguruko herri askok inguratu edota zeharkatu gaitu, baina arazoak arazo, aurrera egin dugu beti gure hizkuntza aro berrietara egokituz.*

*Gaur egun, beste erronka baten aurrean gaude geroari begira. Gauza izango ote gara gaurrarterainoko euskara jaso, egokitu eta etorkizunera bideratzen? Bai horixe!*





**E**gon ere egongo ote da munduan Bizkaiko Golkoari deusala dagoen Euskal Herria bezalako lurralde zoragarririk? Baliteke, baina ikusi egin behar.

Ba, hementxe bertan, herri eder honetako amalurrean zabaldu genituen lehenengoz geure begiak eta hartu geure lehenengo arnasa.

Guk geuk ere ez dakigu noizkoak garen baina hementxe bizi izan gara betidanik eta bertan jarraitu nahi genuke denporen azkenetararte.

Herri zahar-zaharra izanik, gazte dihardugu beti bizigurren bizi-indarrez, biziak bizilanean.

Hasieran, basoan edota kobazuloetan bizi ginen, ia-ia animaliak bezala eta ahorik harako hotsak ere antzerakoak egiten genituen.

Beti genbiltzan harona amalur honetan, mundurik aramaio, atze bete ganadurekin batera, jakia non, gu geu han.

Denetarik geneukan gurean, alde batetik, zenbat gura eta harexen beste ganadu, arrain eta hegazti; bestetik, mendi politak, baso arbolatsuak, lur emankorrek, landa ederrak, ibai urtsuak, itsaso gardena, zeru urdina, klima gozoa eta negurako kobazuloak. Sarri pentsatu izan dugu Adan eta Ebaren paradisua ez ote zen izan berau munduaren hasieran. Batek badaki!

Urteak joan urteak etorri, berbaz ikasi genuen, berez, Euskitz sortuaz eta Euskitzen bitartez Euskal Herria euskaldun eginaz. Animaliak baino gehiago ginen eta gehiago balio genuen.

Animaliak, muuuu!, beeee! guau-guau!, miau-miau!, krum-krum!, ku-ku!, txirri-txirri!, kuku-rruku, txio-txio eta abarka zebiltzan bitartean, gu geu berbaz, isildu ere egin barik geureon artean, egunez zein gau luzeetan. Belaunaldiz belaunaldi, Euskitz barbarots horrek aparteko kategoria eman zigun eman ere beste izakien gainetik egoteko.



Hasieran ez zen izan gauza erraza ha hitz egitearena. Begibistan eta eskuartean geneukana adierazteko berdintsu jokatu behar zen eta batzuetan kostatu egiten zitzaigun adostasunera heltzea ahoz-ahozko elkar komunikabide horretan. Eskerrek lau katu baino ez ginena, gutxi ginen kasuan asko izan bagina ez dakit ba ez ote zen gertatuko Babeleko berbaikuna nahastea bezalakoren bat.

Hasieran gutxi ginenez, denok batera ibiltzen ginen, batera bestera, eta gauzak ikusi, sentitu, entzun eta ukitu ahala izendatu egiten genituen, hala nola, haitz, haize, ur, harri, itsaso, haritz, arte, gari, baso, otso, urde, zori, edur, hotz, bero, egun, gau, ilargi, eguzki eta gainerako guztiak.

Gauiluntzeak luzeak izan eta egiten zitzaizkigunez, baso ezkutuetao arbolapetan ere bai eguraldi ona izanez gero, baina gehienetan kobazuloetan ematen genituen eguzkia sartzamendian sartu eta harik eta egunsentiko argi izpiek kobazuloko atakako arratea jo arte.

Astia zenbat gura eta harexen beste genuenez, berbaldiak egiten genituen gure artean eta

apurka-apurka zehaztu gure euskitza, hots, geure euskara.

Zehazketa hau, familiaratik bertatik hasi genuen. Aita eta ama ziren lehenengoak. Baina semeak edota alabak ondorengo bat edukiz gero, aita eta ama, aitita eta amama egiten ziren eta horrela belaunaldiak sortu.

Baina, aurgora bako aurbeherarik ez dagoenez, gurean, hau da, Euskitzenean ere arazoak agertzen zitzaizkigun. Animaliak, arrak eta emeak zeuden eta batzuetan bereiztu egiten genituen, esate baterako; arrari ahari eta emeari ardi; edo arrari aker eta emeari ahuntz; edo arrari zaldia eta emeari behorra; edo arrari urde-apoa zein ordotsa eta emeari makera; edo bestela arra dela adierazteko “-ar” atzizkia jarri, oilar, katar, azkonar, satar eta abar.

Seme eta alaba hitzak bagenituen baina arazoa etorri zen seme-alabak ugaritzen etorri zirenean.

Amari denak, ama deitzen genion, amak berei, seme edo alaba, baina euren artean zer? Arrak eta emeak huts-hutsean?





Ba, ez. Arrak euren artean adierazteko, anaia, asmatu genuen, emeak euren artean adierazteko, ahizpa, arrak emea adierazteko, arreba eta emeak arra adierazteko neba, horrela denak batera egiteko, neba-arrebak.

Hitzak asmatzea, tira, dendik ere ez zen hain zaila, baina aditzak asmatzea eta behar bezala erabiltzea, hori ez zen gauerdiko ahuntzaren eztula, ez horixe!

Bizitzaren joaneko ekintzetarako era bitako aditzak behar genituela konturatu ginen. Norbaiten zerbait egitea adierazteko aditz iragankorren beharrezana geneukan neurrian, ba, asmatuz joan ginen, besteak beste, egin, ekarri, jakin, eroan, eragon eta gainetikoak. Norberaren izan-ibiliak eta, adierazteko aditz iragangaitzak asmatu genituen, hain zuzen ere, izan, egon, ibili, joan, etorri eta gainontzekoak.

Egunak joan egunak etorri, nahaste ikaragarria sortu zen gurean era bateko eta besteko aditzak nahasten hasi ginelako.

Negua zen izan ere eta astitsu genbiltzanez, aparteko bilera bat egitea pentsatu genuen okerrak bideratzeko.

Gure artean, bageneukan euki ere buru argi bat, ez zen gauza ehizarako jaiokerarik indargea zelako, baina burua beste inork baino argiagoa zeukan eta, jakina, horrexegatik deitzen genion irakasle.

Gure irakaslea pentsakor ikusten genuen. Zirriborro batzuk ere egin zituen han kobazulo albo-haitzean eta handik lasterrera udearen hasierako gaua aukeratu zuen bilera egiteko.

Egun horretan gaurik laburrena genuen eta gainera sugarrak egiten genituen aro berriaren hasiera ospatzeko. Ondo etorriko zitzaigun sugar-argi hori gaueko bilera garrantzitsurako.

Umeei lo-arrazo eta nagusiok suaren oboan-oboan ezarri ginen gure maisu argia denon erdian zutunik genuela.

Maisua jakituna izateaz gain errespeto handikoa genuen eta honela egin zigun berba beso biak zabal-zabal eginik:



—Zer gertatu zaizue ba hainbesteko nahastea sortzeko? Aditz asko ere ez ditugu ba alde batekoak eta bestekoak batuta ere!

—Hara, maisu, —erantzun zion gure ehiztarietako bizkorrenak—, gu hor gabiltza ibili batetik bestera baina ehiza edota beste behar gogorren bat egin behar dugunean geure indar berezia erabiltzen dugu eta, jakina, horrelako ekintzak adierazteko aditz berezia ezeze zerbait gehiago ere eskatuko nuke. Gainera ez da berdin basurde edo izurde bat harrapatu edo bat baino gehiago, zer deritzazu?

—Egia da —erantzun zion maisuak—, hizkuntzak, gure bizikera guztien ispilu izan behar du eta bizi dugun guztia ahotik askatzen jakin behar genuke eta bereizi behar dena bereizi, bakoitzari berea ematealakorik ez dago-eta.

Txalo eta guztiak entzun ziren gure artean eta maisuaren oboan-oboan ezarritakook berbaroan jarraitzen genuen bitartean, gure maisua okozpeko bizarrari oratuta buruari bueltaka zebilkigun.

Halako baten, zutundu egin zitzaigun gure maisua eta beste guztiok isildu ginenean esan zigun ba ze:


—Hara, besterik asmatzen ez dugun artean, hauxe pentsatu dut era bateko eta besteko aditzak bereizteko: aditz iragankorretako egileak marka berezi bat eramango du beti, “-(e)K” izango da eta aditz horri dagokion osagai zuzena plurala denean beste marka bat, hots, “-IT-; -Z; -ZKI-”; era horretara sujetoa eta osagaia aditzarekin komunztaduran joango dira singular-pluraletan. Zer deritzazue?

—Ondo baino ere hobeto —erantzun zuten batez ere indartsuenak.

—Itxaron. Gehiago oraindik, nork egiten duen, zer egiten den eta nori egiten zaion ere aditz barruan sartuko dugu eta era horretara hobeto ulertuko dugu elkar. Zer diostazue?

—Ezin hobeto! —erantzun zuten denek txaloka, zantzoka eta oinberdinka gora-goraka.

Gau hartan ospatu eta guztiak egin genituen maisuaren erabakiak uda sarrerako sugarren aurrean.



Hurrengo goizean, gure maisuak nahiko lanik izan zuen gure ume eta nagusi guztiei bezperako erabakiak azaldu eta ikasi arazten, bateko NOR? besteko NOR-NORI? horragoko NOR-NORK? haragoko ZER-NORI-NORK?

Gauzak baretu ziren baina gure maisuaren garaunak pilpilean zebiltzan eta ia lorik egin ezinean zebilen. Horretara esan zion gure arteko nagusienak, maisuaren aititak:

—Zer gertatzen zaizun baino ez da? Zer darabilzu hor zeure buruan, jakin dezakegu?

—Ba, hara, aditzarekin nabil burua hausten. Jakina, gurean, Euskitzenean, hiru eta lau belaualdi bizi gara batera eta zuok nagusiok errespetoa merezi duzue eta hori hizkuntzan ere adierazi egin behar da, beste edozein sentimendu bezala.

—Bai, —erantzun zion aititak—, arrazoia daukazu baina nola egin daiteke ba hori bereizketa hori?

—Ba, aditu, besteak beste, aditz jokoan.

—Aditz jokoan? Zer zaizu ba hori maisu gazte?

—Ba, aiko, aitita, zuok zaharrenok zeuon artean zein gazteagoei eta guk gazteok gure artean, HI-TO-NO jokia erabiliko dugu.


—Zer duk hori HI-TO-NO hori?

—Ba, oraintxe zeuk egin didazuna, oraingoan aditzaren jokoiari berari ipini diozu “-K”. Baina ni aurrerago joango nintzateke, gizonezkoak andrazkoari eta andrazkoak andrazkoari “-N(A)” ipini beharko genioke bereizteko eta euskal emakumea aintzakotzat hartu, zer deritzazu?

—Oño! Ederto zagok hori, hi haiz hi izatekoa, hori duk eta!

—Gehiago oraindik aitita, seme-alabak gurasoei ZU jokia erabiltzea litzateke egokiena eta belaunaldirik zaharrenekoekin BERORI jokia.

Pentsatu eta egin! Euskitzenean, denetarik geundenez, eta astia ere zenbat gura eta harexen beste geneukanez, hiru tratametuak erabiltzen genituen. Andrazkoak bai pozik! Ez zen gutxiago-



rako, goizetik gauera tratamentu berezi bat nork eukiten du ba?

Mendeak joan mendeak etorri, gauza eta ekintza bakoitza izendatzen, aditz jokia erabiltzen, hitzak josten aditz aurreari toki berezia emanaz eta deklinabide zehatza finkatzen joan ginen beste gauza askoren artean, hau da, zelako beharrizana halako asmakizuna!







**B**elaunaldi zaharrak belaunaldi berria ekarri ahala, Euskitzen sendia geroago eta handiago izatera etorri zen. Tokia ere handiagoa behar zen eta apurka-apurka zabaldu egin zen gure amalurra, Bizkaiko Golkoaren itsas ertz zein lur barrurantz.

Handitze eta zabalkunde honek bere gauza onak eta bere arazoak ere ekarri zizkigun.

Amalur honen barruan, bake-bakean bizi ginen. Izan, izaten genituen etxe barruko eztabai-datxoak baina denok zaintzen genuen geure herri-lurra.

Gizaldiak joan gizaldiak etorri, hizkuntzarekin izaten genuen ulertu-ezin bat edo beste. Jakina, lurraldea zabaltzen joan zitzaigun neurrian, pixkanaka-pixkanaka euskararen barruan aldakiak sortzen

hasi ziren baina aldakiok goiti beheiti denok sentitzen ginen euskaldun, nola ez ba? Amalurraren lurralde bakoitzari ere izenak jartzen hasi ginen euskararen aldakien arabera, hala nola, Bizkaitz, Gipuzkitz, Lapurtitz, Zuberitz, Erronkalitz, Naparritz...

Belaunaldiak joan belaunaldiak etorri, geroago eta aldenduago bizi ginen Euskitzen umeok eta ahaleginak egiten genituen bateratzeko baina ahoz-ahozko bizitzaren inertziak hartuta zeukan bere bidea. Bizkaitz aldatu zitzaigun gehien, batez ere bere aditz sistemari eutsi egin ziolako.

Beharrizanak eraginda edo aldakuntzak arean bere jatorrira bideratzeko, gutxi gora beherako biderdi eginaz, Naparritz-eneko goialdean elkartu ere egin ginen behinola Euskitzeneko guztiok elkar ulertu ezinean erori ez egiteko.

Egun horretako bilera historikora, euskalki guztietako ordezkari guztiok joan ginen.

Jakin bagenekien egun baterako baino gehiagorako edukiko genuela eta horretara, Naparritzek



aterpe leku zoragarri batera eraman gintuen, nora?  
eta Zugarramurdiko kobazulora.

Asko ginen eta ataka-atakaraino bete genuen  
ha aterpe liluragarria, batean besteko barbarotsaren  
laguntasunean.

Ohitura bezala, sua egin genuen kobazuloaren  
erdigunean eta bere oboan-oboan ezarriz joan ginen  
gu guztiok.

Naparritz zutundu egin zitzaigun eta Biz-  
kaitz izendatu hango zereko zeraren zera zertzeko.

Bizkaitzek, bihotzerik harako bizkaitzezko  
berba samur, gozo eta zintzoak askatu zizkigun  
bere ahotik esanaz:

—Bihotz bihotzeko anajeok: zer gertatu dan  
baino ez dok gurean? Euskitz sortu gendunean,  
Santi Mamiñe, Balzola, Supelegor eta abarretan ez  
geunkazan gaurko gorabeherak alkar ulertuteko  
eta gure sendia amalur honetan zabaltzeak ekarri  
deuskuzan ulertezinak ez dira ez txantxetakoak.  
Niri neuri, gatx egiten jat zuotariko batzukaz

berba egin eta ulertutea eta esaten deustazuenez zuoi gatxago nire neure berbaikunea aitutea.

Denok geunden isilik, zer erantzun ez genekiela baina Bizkaitz artega zegoen eta aldakuntzak aldakuntza, berba egin nahi zuen guztiekin. Horretara badiotso Erronkalitz zaharrari:

—Zelan dabil ba berori? Berorri berbarik egin ez deutsadala urteak eta urteak izango dira izan ere, zer dinost ba berorrek?

—Hara, Bizkaitz anaia maitea —erantzun zion Erronkalitzek—, zu ere jin zra kona. Kemen gaude hunki. Zuk hunki erran tzu, aspaldian ez gra batera egon baina orai ene bihotza anitz pozik da.<sup>(1)</sup>

Zuberitz ere handik urrun barik zegoen eta Bizkaitzen interesa ikustean honela berba egin zion:

---

(1) *Hara, Bizkaitz anaia maitea, zu ere etorri zara hona. Hemen ongi gaude. Zuk ongi esan duzu, aspaldian ez gara batera egon baina orain nire bihotza oso pozik dago.*



—Ni, Zuberitz niz edo hobeki erranez Zuberitz nauzü eta phoz handia ematen deitazü urthe anitz egon bait gira elkar ikhusi gabe hanko eta hemenko anaiok.<sup>(2)</sup>

Gipuzkitz ere han zegoen berba egin guran eta halako baten badiotso Bizkaitzek:

—Hi, alkarren ondoan bizi arren gu ere aldendu egin gozak alkarrengandik, zer gertatu behar jok ba?

—Hara, Bizkaitz, —erantzun zion Gipuzkitzek—, hi nire mugetan barrena sartu haiz baina nik bestalderantz jo nahi diat, horregatikan, hartu dedan bideari jarraituko zioat, ulertu al dek?

Bizkaitz mututu egin zen berbok entzutean eta hango isilunea apurtu nahian edo badio Lapurtitzek:

---

(2) *Ni Zuberitz naiz, hobeki esanez Zuberitz nauzu eta poz handia ematen didazu urte asko egon baikara elkar ikusi gabe hango eta hemengo anaiok.*

—Eskerrak eman behar dauzkitzuet anaitasun handia baitauku. Denok jin gare elkarren ikustera zeren, anaitasunik gabe ezin bizi girade.<sup>(3)</sup>

Iritziak iritzi, egun zoragarri bat pasatu genuen Zugarramurdiko kobazuloan eta ahaleginak egin arren denok bateratsu hitz egiteko, bakoitzak bereari eutsi genion eta onartu egin zen Euskitzenean berbaikune ezberdinak erabiltzea, baina denok euskaldun izaten jarraituz, tokian tokiko euskal berbaikune eta ohiturak onartu eta errespetatuz bene-benetako anaitasunean.

Bilera luze, sakon eta garrantzitsua bukatu ondoren, jan-edanari ekin genion, burduntzian erretako haragia, ardo, sagardo eta gainetiko guztiak dastatuz.

On egiteko beste jan eta edan genuenean, kantuka eta kontuka hasi ginen bakoitza bere eran.

Ulertezinak ulertezin, anaia bezala bildu ginenok, anaia bezala banatu ginen bakoitza norbere jatorrira itzuliaz, baina denok Euskitz izaten jarraituz.

---

(3) *Eskerrak eman behar dizkizuet anaitasun handia baitaukagu. Denok etorri gara elkar ikustera zeren anaitasunik gabe ezin gara bizi.*



**B**akean dagoenari bakean uztealakorik ez dago baina mundu honetan zergatik-hargatik beti egoten da zirikadaren bat eta Euskitzenean ere gonbite gabeko arrotzak agertzen hasi zitzaizkigun, Iberitz, Keltitz... eta batez ere Latinitz.

Arrotzen artean Latinitz izan zen entzutetsu eta eraginkorrena. Handia eta indartsua izateaz gain inperiorik handienaren bila zebilen. Horretarako tresneria ugaria zeukan, bai itsasorako bai bidegintzarako, bai burdina lantzeko, bai labrantzarako, bai basoen ustiapenerako, bai defentsa beharretarako, berba baten esanda, denerako.

Bakean bizi eta bakean joan. Ezin genuen ezer egin eta hiltea azkena denez, zuhurtasunez

jokatzea ebatzi genuen, belea beltzago ez dela egingo gogoratuz.

Baso-mendiak geureak ziren eta defenditu ere egin genituen baina Latinitz hementxe geratu zitzaigun eta laguntasunean bizitzea hobea zela pentsatuz, harremanetan sartzea onartu egin behar izan genuen, bestela gureak egin zuen! Nor atomatu Latinitz indartsuaren aurka?

Harremanetan bai, baina ez genuen latinitz berbaikunea ulertzen. Ikusi eta sentitu dena baina ulertu geure sentimenak ahal zuena bakarrik.

Latinitzenekoak bidegintzan egin zuten lan handia. Zubi eta guztizko arpide asko eta handiak egiten zituzten. Gazteluak, ikaragarriak eta abar luze bat.

Laster konturatu ginen Latinitz ez zetorrela Euskitz menperatzen beste helburu handiago baterako baino.

Gurean, lur lautadak behar zituzten zerealak ereiteko, meatzeak tresnerietarako eta egurra ikatz edota sutarako.





Euskitzenekoak, beti egon gara zabalik dato-  
rrena ona bada hartzeko eta horixe egin genuen  
Latinitzenekoekin.

Garia ereiten ikasi genuen lehenengo. Lati-  
nitzek lautada ederrenak erein zituen gariz bere-  
neko guztiei jaten emateko.

Guk enbidiaz begiratzen genion eta egun  
baten eskatu ere egin garia geuk ere erein eta  
ondorengoak jateko, baina alperrik, beti ezetza.

Azkenean, lortu genuen gari hori Perutxu  
eta San Martintxuren zuhurtasunaz. Gehiago orain-  
dik, boluak edo errotak egiten ere eurengandikoa  
zen. Burdina lantzea ere bai eta tresnak egitea zer-  
tan esanik ere ez.

Ikusten genuena egiten ikasi eta apurka-apurka  
esaten ere ikasi genuen. Ez Latinitzek bezala, zer-  
txobait aldatuta baino.

Latinitzenekoak basora egurretan etortzen  
zirenean guk bezala bakoitzari bere izenetik deitu  
beharrean, “arbora” esaten zuten eta horretara esan  
zigun gure maisuak:

—Aizue, senideok, berba berri bat ikasi dut Latinitzengandik: “arbola”, hots, denak batera adierazteko, zergatik ez ote dugu lehenago asmatu geure hitz bat horretarako?

«Maisu gazte —erantzun zion ahaide zaharrak—, orain arte asmatu ez badugu, behar izan ez dugulako izan da, nahikoa euki dugu arbola bakoi-tzari bere izenetik deitzeaz. Aurrerantzean badaukagu denak batera adierazteko berba hori ere, Latinitz baino gutxiago ez gara izango, ezta?

»Gehiago oraindik; guk geure goialdetako basoetan badugu bai, zura, egurra, ezkurra, orbela, gerizpea, babesa eta abar ematen digun landare mitikoa. Izenik gabe ezagutzen dugu, geurekin bizi delako edo geu berarekin. Latinitzentzat ez denez mitikoa, izena jarri dio, “fagus” eta zer egingo dugu ba, geuk ere “pago” deitu behar aurrerantzean.

»Behe-basoetan daukagun beste landare mitikoak badu gure izena, “haritz, nola ez ba, edozein erabaki hartu behar izaten dugunean harizpean egiten dugu eta.” Horra hor, Gernikakoa, Malato (Luiandokoa) eta gaisetikoak!»



Latinitzenekoak ganaduekin ere ikusten genituen eta beti ari ziren “abere” hitza esaten. Esan eta esan, geuk ere ikasi egin genuen orokorrean adierazteko nahiz eta banan-banako abereak bere izena euki, behia, astoa, ardia, zaldia, idia eta abar luze bat. Gehiago oraindik, gu aurrerago joan ginen. Abere ikasi eta beragandik berriak atera, aberatsa adibidez, ganadu elia duena adierazteko.

Gu geu, kobazuloetan ezeze, harrizko gorta edota txaboletan ere bizi ginen, baina Latinitz harrobietarik harako harlanduzko eraikinak egiten hasi zen eta “castellum” deitzen. Guk ere, euren antzera edo, hargintzari ekin genion, zer ikusi ha ikasi eginaz eta gainera izena ere eurengandikoa hartu genuen, “gaztelu”. Beste hainbeste egin genuen gaztelurabideekin. Latinitzek harri-losazko bideari “strata” deitzen bazion guk “estarta”, eta aurrera bolea!

Edozer gauza adierazteko, Latinitzek “kausam” esaten zuen eta guk belarria adi geneukanez, antzerako bat entzun eta “gauza” esaten ikasi genuen

eta ondo etorri zitzaigun horretarako zein gehiagotarako, “gauza izan, gauzeztandu” aditzerako esate baterako.

Haserretu ere egiten ziren euren artean Latinitzenekoak eta batak besteari esanak esan ondoren, bizar zuridunak beti zebiltzan besoak zabaldu eta “pakem” esaten. Guk hori ere ikasi eta aurreran-tzen, behar zenean “bake” esaten genuen eta kito! Gure artean, lagunak izatea nahikoa zen baina orain adiskidetu eta bakeak egitea adierazteko ere bage-neukan beste berba bat, bakea, zer berba polita eta ederra!

Era honetara, behar genituen berba berriak ikasten joan ginen gure belarriak entzun eta ahoak ahoskatu ahala, baina gabeziarik handiena aditzetan geneukanez egun baten maisuak elkartu egin gintuen esanaz:

—Aditu, senideok, aspalditik ibili naiz Latinitzenekoei sorots egiten jakiteko ia nola konpon-tzen diren hainbeste aditz erabiltzeko eta irtenbide bat aurkitu dut. Zein eta hauxe: Latinitzen aditz



bukaera bat hartu eta gure izen zein antzekori -TU atzizkia jarriz gero aditz berri bat sortzen dugu. Adibidez: “handi-handitu; bildur-bildurtu; zahar-zahartu; luze-luzatu, on-ondu, gazte-gaztetu, bizkor-bizkortu, epel-epeldu, basora-basoratu; izan-izandu, egon-egondu etab., etab., etab.

Txaloka eta zantzoka hartu genuen erabaki hori eta ikaragarritzko jaia ospatu gurean. Latinitzenekoak ere ikaraturik geratu ziren gure poza ikustean. Eurak ezin zuten gure hizkuntza ikasi eta guk eurena bai oster. Holakorik?





**L**atinitzengandik, hitzak, aditzak, bizikerak, berba baten esanda, egoki genuen guztia ikasten genuen baina beti ere euskitza aberasteko.

Egun baten, Latinitzen hemengo buruzagia hil egin zen, zaharraren zaharrez eta hileta ondoren harri landuzko hilobi baten sartu zuten buru aldera harri biribil bat zutik ipiniaz. Euskitzene-kook arretatsu begiratzen genien, guretzako lurperatze berezia zelako. Guk, gurean, kobazuloan bertan edo trikuharripean sartzen genituen gorpuak eta gero lurrez ondo tapatu, baina ikusiak ikusita aurrerantzean imitatzen hasi ginen batez ere zutik ipintzen zen harri biribilari dagokionean.

Handik lasterrera, joandako buruzagiaren hilobiaren oboan-oboan jarri ziren Latinitzen agin-

tari nagusienak. Halako baten, fetura barregarriko azti batek urten zuen erdira eta agintarien arteko zaharren biei deitu. Guk ez genuen euren berbaikunea ulertzen baina aztiaren itzaldia entzun ondoren etzaten ikusi genituen aukeratutako biak. Biak etzan ziren burua iparrera eta oinak hegoaldera zituztela. Batak bestea ikusi ez egiteko, egurtxirikordatuzko hesia jarri zuen aztiak bien erdian eta alde egin.

Guk ezin genuen ezer ulertu. Biak zeuden gora adi eta txoriren bat ikusten zutenean hegaz, besoak goraka eta atzamarrak kontatzen hasten ziren. Horrela egon ziren egun osoan, egunsentitik arrastirarte.

Iluntzean, etorri zen aztia eta berriro elkartu ziren buruzagi hilberriaren hilobi inguruan.

Zerura adi egon ziren biak euren kontatubeharrak kontatu zituztenean, aztiak buruzagi berria aukeratu zuen "bonum augurium" deiadarka. Nor? Ba, guk ikusi ahal izan genuenetik, txoriak hegaz eskumako aldetik ikusi zituena.





Egun horretan Euskitzenekook, berriro ere, ikasi egin genuen gauza berri hori eta behar zenean erabili, baina geure kutsua emanaz. Horretarako erne zebilen gure maisua eta handik buelta hortik buelta, badiosku egun baten:

—Aizue, gureok, hori Latinitzen ohitura hori zergatik ez dugu geureago egiten, geure hitzak erabiliz?

—Nola, ba? —beste guztiok.

—Ba, hara, errez. Txorietan badago zorte ona edo txarra, ba zorte onekoei, hots, eskumakoei “Zori-onak” deituko diegu eta eskuma erabiliko dugu denerako, jateko, eskua emateko, zin egiteko eta abarretarako.

—Zori-onak! Zorionak! —erantzun genuen denok aho batez, hori duk eta!

Erromatarrengandik asko eta asko ikasten genuen baina beti ere geurea zainduz eta geu izaten jarraituz. Bagenekien indarkerian ez geneukala zereginik latinistarrekin eta zuhurtasun bidetik ibiltzea ebatzi genuen eta denborak argi egin digu.

Batzuetan, Latinitz panparroikerietan ere hasten zitzaigun, gu geu baino gehiago dela eta esanaz, baina geuk ere ematen genion irakatsiren bat edo beste.


Holako jazoera batzuk izan arren, ondo konpontzen ginen bitzuok. Guretzako ona zena ikasi egiten genuen eta gaisetikoa ikusi.

Astean behin etenaldi bat egiten zuten Latinitzen kideek. Egia esan, gure astea eta haiena ez zen berdina. Gure asteak hiru egun baino ez zituen eta haienak sei.

Handik geroagora, guk laugarren egun bat ere asmatu genuen, “laurenbat” larunbat, izango zena. Hortik ba gure lau egunak: astelehena, asteartea, asteazkena, larunbata.

Latinitzen sei egunak hauexek: “Lunae dies, Martis dies, Mercurii dies, Iovis dies, Veneris dies, Saturni dies edo Sabbati dies eurak ere Hebraitzetik hartuta hau azkenengo hau.

Gero, kristautasuna zabaldu zenean, zazpigarren egun bat ere asmatu zuen Latinitzek, Bibliako



irakatsietan oinarriturik. Hortik ba, Dominico/a, hots, Jaungoikoaren eguna.


Gauzak horrela, nahaste handiegia zen egun ezberdinekin ibiltzea eta azkenean zazpi egunak osatzea erabaki behar izan genuen.

Ez zen izan bat ere erraza, Euskitzenean geurean ere era ezberdinerara egin genuelako, lekuan lekuko aldakien arabera.

Bizkaitzenean, Latinitzen ordena jarraitu zen, egun batzuen izenak mailegu bidez hartuz eta besteak asmatuz, “egun” argi-hitza bitarteko. Azkenean hauexek: astelehena, martitzena, eguaztena, eguena, barikua, zapatua eta domeka. Bariku dela eta kristautasuneko ohitura zahar bat hartu zen kontuan, zein? eta hauxe: asteen behin baraua egi-tearena, jatorriz: “abari bagako eguna”.

Bizkaitzenetik kanpo beste era honetara hartu ziren astearen egunak: astelehena, asteartea, asteazkena, ortzeguna (gero osteguna), ortzirala (gero ostirala), larunbata eta igandea.

Asteroko atsedenaldi eguna domeka edo igandea zen eta bai Latinitzek eta bai guk geuk, bakoitzak bere jainko edota jainkosei egiten genien gurtza edo kultoa.



**G**uk, denporen hasierarik honako jainkosa bakarra genuen, Mari, lekuan lekuko izena ematen zitzaiolarik, Mari Anbotokoa, Txindokikoa, Aralarrekoa, Gorbeiakoa, Urduñakoa etab. Andere ederra, polita, ilegorria. Zazpi urtez Anbotoko kobazuloan egoten zen, beste zazpi Gorbeiako Supelegor kobazuloan eta beste zazpi itsasoan. Edozer behar genuenean Mari non, haraxe joaten ginen gure opariak eramane eta aholkua eskatzen.

Behin baten, eztabaida ikaragarria sortu zen Euskitzenean. Ilargia, bete-betea dagoenean, gerizpe edo ilundez beterik dager. Ilargibeteko egun baten, denok geunden zerura adi eta han sortu zen eztabaida. Zaharrak, honegatik dela, erdikoak horregatik eta umeak hargatik.

Konpontzerik ez zegoenez Mari Anbotokoari konsulta egitea pentsatu eta egin ere egin zitzaion.

Hurrengo egunsentian, gureko maisua tipitapa joan zen Anbotoko kobazulora eta behin haraz gero badiotso:

—Mari gure jainkosa anderea, eztabaida gogor hau izan dugu gurean eta konpontzerik ez dagoeenez berorregana jo dugu argitasun bila. Ba al daki berorrek ilargiaren ilundeon zergatia?

—Jakingo ez dizut ba? Jarri zaitez neure ondoan eta arretaz entzun gero Euskitzeneko guztiei kontatzeko.

«Aldi baten, noizik hona ez dakigula, eguzkia eta ilargia andra-gizonak omen ziren, eta, martiko idergibarriko gaulendian eguzkia sartza-mendira noiz helduko dagoela, badinotso eguzkiak harrokeriaz beterik:

—Ikusten duna mundua, egunean baino egunean ederrago!

—Bai, ikusiko ez diat ba!


—Ba, hori edertasun hori neure argi eta beroari esker duna gero!

—Bai, eta nire neure gauetako inontzari, ala, inontzak ez dik balio ezertarako!

Hori entzun bazion ba ze, haserretzen zaio eguzkia, hartzen du esku biak bete txinger gori bere barrutik eta plast! aurpegi-aurpegira bota zizkion txingerrok ilargiari eta erreunez bete bekokitik okotzerainoko guztia. Oraintxe eta oraintxe ere ezagun ditu haiek erreuneak, aditutea baino ez dago ilargiari idergi betea denean.

Baina, eguzkia hain ikusten zuen berde, bildursartu eginda zegoen ilargia eta karran hasi zitziaion zein eguzkiak behar ez denaren bat egin. Eguzkia orduan atzerik hara gainetu zitzaion mirua harrari letxe eta odolak ur egiteko gutxiren faltan.

Joan eta joan bata bestearen atzean, hilgora, ilargi bete, eta hilbehera guztian eragoion eguzkiak ilargia harrapatzen.



Ilargiaren arnasestua eta magalotsa inoiz ikusi bakoak ziren eta bere burua holan ikusirik badino berekitan:

—Gesu baten gainetu behar zaidak eguzki armin kokorio hori, baina ez dik berea egingo lehenengoan!

Eguzkia orpoetan har barik zihoakion atzerik hara eta hogeita zortzigarren egunean ia-ia koiu eginik zeukala, ez dio ilargiak bere burua gordetzen!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak hartu zizkion eta egunak joan egunak etorri, ilargia atzerik hara ikusten zuen zeru zabalean eta badino bere artean:

—Burua non gorde didan baino ez duk horrek andra galera horrek!

Orduan, atzera egin ezin zuen lez, arin eragoion eragon ere ilargia barriro atzerik hara koiuteko eta, horretarako denodu guztiaz eta inizitua baino arinago ibilita ere, beste hogeita zortzi egun behar izan zituen, baina ilargiak ostera ere, bere burua gorde, batek badaki non!...




Gaur ere oraindino hor dabilzkigu eguzki-  
-ilargiok bata bestearen atzean, egunez argia zein  
beroa eta gauez inontza dariola.»

Horrelaxe bukatu zen gure eztabaida eta  
handik hortik hemendik, aurrera egiten genuen  
ikusten eta ikasten.

Latinitzena demasa zen. Jainko eta jainkosaz  
beterik zegoen. Batzuk, jainko hutsak, beste batzuk,  
jainko-lurtarrak. Jupiter zuen bere jainko nagu-  
siena eta hortik behera zenbat gura eta harexen  
beste pertsonai. Ez zen harritzekoa. Denporaren  
poderioz jakiten joan ginenez, Latinitzek berak  
ere Grekitzen mitologia eta gainetiko kulturaren  
eragin bizi-bizia izan zuen.

Historiatik dakigunez, Latinitzen inperioa  
mundu zaharreko handiena izan zen baina kultu-  
rak menperatzeko indarkeriak ez du balio. Aditu,  
Latinitzek Grekitz menperatu zuen baina urteak  
joan urteak etorri Grekitzen kulturak aurrera egin  
zuen gehienetan latiniztuta agertu arren.



Eraginak, aditu norainokoak, Euskitzenera ere iristen zitzaizkigun Grekitzen mitoak Latinitzen bitartez eta nahastea sortu gurean.

Nahasteetariko bat Tartalorena genuen. Gutariko batek baino gehiagok jentil edo basajauntzat hartu izan zuen, baina ez zen. Geroago jakin dugunez, Tartalo Grekitzengandikoa dugu guk geureganatu arren. Izena bera ere ez da Tartalo, Polifemo baizik, baina guk ziklopeak bizi ziren toki-izenaz ezagutzen dugu, Tartaroan bizi baitziren begibakarrok, Hades inpernua baino askoz barruragoan.

Latinitzen era askotako jainko horien artean, Saturno aipatuko genuke, zer gertatu zitzaion jakiteko.

Antza denez, Saturnok ez zituen Jupiterren aginduak bete eta Jupiterrek euren zerutik lurrera bota zuen.


Saturnok geroago Romulok sortuko zuen Erroma aldeko Latio lurraldean aurkitu zuen bere burua, bakarrik eta errukarri. Baina jainkoetariko bat ere bazenez, Latioko lurretan egon arren, lanean

hasi zen bizitza erosoan eramateko asmoz, Jano jaunaren oniritziaz.

Pentsatu eta egin. Egunak joan egunak etorri, Saturnok paradisu bat sortu zuen lurralde horretan eta jai handi batzuk ere antolatu neguaren hasierarako, “Jai Saturnalak” izenpean. Grekitzek ere ordurako jai Dionisiakoak ospatzen zituen udaberriaren etorreran.

Harrezkero, gure artean genuen Latinitzek ospatu egiten zituen jaiok, eta nola gainera? Jan-edan guradenaren ostean ikaragarritzko dantza eta algarak ateratzen zituen, legerik ez bazegoen bezala.


Guk gurean osteran, beste era batera ospatzen genuen neguaren hasiera. Eguberri izena jarri genion egunaren argi aldaketagatik. Gu geu ere alkartu egiten ginen suaren inguruan eta zaharregandik hasita bakoitzak bere neguak kontatu gaztetxoeni behar ziren irakatsiak azalduz. Mari Anbotokoari ere egiten genizkion urteroko zantzoak eta berak ere erantzun tokian tokiko kobazulotik.



Neguak joan, udak etorri, Latinitzenean, Euskitzenean aspaldirik gertatu zen antzerako fenomeno gertatu zen. Denboraren joanean, berbaikunea aldatzen joan ziren eta ia-ia euren sorterrikoekin ez zuten elkar ulertu ere egiten. Apurka-apurka, Latinitz, Romantzitz bihurtuz zetorren alde bate-tik, eta Frantzitz, bestetik.

Gurean ere eragina izan zuen aldaketa horrek. Guk gorde egiten genuen euren berbaikune zaharra eta gero berria ere ikasi egin behar. Baina ikasi. Esate baterako, Latinitzen “saltum, tegulam, corticeam...” zaharrak, guk “sautu, tella, kortikea” eta Romantzitzek, ordea, “soto, teja, corteza”. Ha bai zela nahastea! Baina Euskitz beti erne eta beti zabal eta beti ikasten.

Tella, hitza aipatu dugu eta hortik tellatu. Gurean zur, harri edo zohizko teilatua genuen baina lur errerik harako gauza gorriok ikusi eta deitura ikasi genuenean, geuri ere ondo baino hobeto etorri zitzaigun. Harrezkero geu ere teila-pean bizi ginen.



Bizi bakarrik ez, teilapea babeslekua zen, biziz zein hil eta gero. Gainera, etxetik joaten zenari ere teila bat ematen genion berriro etortzeko eskubidea izateko. Hortik aparte, mugarriak ipini behar zirenean ere, harripean teila-kasku bat sartzen genuen testigu bezala, beste edozein harriekin nahastu ez egiteko.

Benetan ere, asko ikasten genuen Latinitz zein Romantzitzenetik, “zer ikusi ha ikasi” eginaz eta era horretara geure nortasuna galdu barik munduan aurrera gindoazen.

Gurean ere bagenuen kontserbadore bat edo beste eta horiek ez zuten nahi hainbeste mailegu hartzerik, baina bizitzako inertziak ez zigun eman beste aukerarik. Aurrera egin behar bazen, egokitu egin behar genuen ingurukoekin baina geure geutasuna galdu gabe.


Ingurukoekin egokitzea ez zen beti erraza izaten eta kasurik larrienetarikoak aditza eta artikuluan izan genituen. Gure maisua zoratu ez zenean? Ez zen gutxiagorako.

Artikulutik hasiko gara. Latinitzek ez zuen artikululu mugatzailerik baina Romantzitzek erabileraren erabileraz sortu egin zuen. Guk entzun entzuten genituen bateko “ille”, besteko “illa” izenen aurretik eta azkenerako “el” eta “la” bihurtu ziren. Baina, hau egin zutenean, erakuslea falta zitzaien, nola erabiliko zuten ba gauza bera biak egiteko?

Horretara, indartu egin zuten lehengo erakusle zaharra eta berri bat egin Latinitzen “ecce+eum +ille”-tik eta hortik Romantzitzek “aquel” asmatu. Era horretara Romantzitzek artikuluez gainera berriro zeuzkan hiru erakusleak: “este, ese, aquel”.

Euskitz ez zen gutxiago izango. Guk ere, Latinitzen antzera, ez geneukan artikululu mugatzaile hori. Erakusleak bai. Horretara, gure maisuak esan zigun:

—Berriro ere tokatzen zaigu egokitzea baina ez larritu, guk “ha” erakuslea artikulutzat hartuko dugu, “h” gabe eta behar denari erantsita, adibidez: gizon+a, neskato+a, baso+a, gauzaa, etab. Jakina, erakusle barik geratu ez gaitzen, hirugarren hori indartu egingo dugu geuk ere “haur- edo ber-”



aurretik jarrita, hots, era honetara: “h(a)ura edo bera”. Era horretara berriro lortuko dugu hirukotea, alegia, “hau, hori, hura edo bera”.

Bueno, txaloak eta guztiak hartu zituen gure maisu azkarrak eta Euskitz geroago eta kultoago zihoan bere mintzabidean.

Aditzaren egokitzea gehixeago kostatu zitzaien gure maisuari baina hasiak egina dirudienez eta eginak urregorria, ekin eta ekin, hori ere gainditu egin genuen gureko sinesgaitz askoren zalantzak goiti beheiti. Nola? Ba, aditu:

Euskitzenean hitano, zuka eta berorika jokoak hirurak genituen etxe-etxeko eta erabili ere behar zenarekin egiten ahalegintzen ginen.

Baina munduan, Grekitzen esaerari eutsiz, “panta rei” gertatzen denez, Latinitzenean ere urteen joanean aldaketak sortuz zihoazen eta behin Erdi Aroraz gero Romantzitz izenez ezagutzen ziren gurean zein mundu zabalagoan.

Nahaste ikaragarria sortu zen Latinitzen eraldatzean, eta ez bakarrik ahozkoan, idatzian ere bai.

Aditu norainoko nahastea. Idazti zaharretatik dakigunez, Latinitz ulertzeko Romantzitzen parekoa jartzen hasi ziren aldamenean eta inoiz edo behin Euskitzeneko esangurea ere bai Romantzitz delakoan, Kugullako Donemiliagan baieztatzen denez.


Nahaste horretan, Romantzitzenean, “tu” baztertu eta “vos” tratamentua erabiltzen hasi ziren kategoriaren arabera.

Euskitzek ere beste hainbeste egin zuen. Guk, bageneukan “ZU” Romantzitzen “VOS”en parekoa baina eurak “TU”rekin itzultzen zutenez, guk beste plural bat ipini behar genion “ZU+EK” euren “VOSOTROS” ekin parekatzeko.

Egokitze honek nahaste apur bat ekarri zuen, baina horrela daragoiogu batean besteango ezberdintasunekin.

Solstizioak joan solstizioak etorri, kristautasunaren berri zabalagoa ere etorri zitzaigun Latinitzen bidez lehenengo eta geroago Romantzitzen eskutik.





Guk geuk bagenekien jakin zertxobait harako Olentzeroren mitoaren bidez, urtearen hilabete-zatiketa edota zazpi eguneko astea osatzetik baina ez geneukan argitasun handiegirik, jakiteko egarria bai ostera, geure geuretasuna galdu barik besteentaz aberasteko.

Kristautasuna zabalduz zetorren eta gure sineskera zahar tokiak komentu, eleiza, baseliza eta kurutzez betetzen hasi zitzaizkigun.

Euskitzeneko sineskera zaharreko jentilak artegatu egin ziren eta kristauak egunez egiten zituzten eleizgintza lanak, gauetz lekuz aldatzen zituzten. Begira, behin zer gertatu zen.

Gutariko asko bizi ginen kobazuloaren aurrean, komentu handi bat eraikitzen hasi ziren kristauak. Harrobietatik harria atera, landu eta gogatsu zebiltzan eleizaginen.

Gauean, jentilak agertzen ziren alaurika eta euren indar handia bitarteko, lekuz aldatzen zituzten horma-harri guztiak.

Hurrengo egunean, kristauak berrien berriz hasi behar izaten zuten eraikuntza eta ez zekiten zer egin jentilokin.

Baina halako batean abadeari gurutze bat ipintzea gogoratu zitzaion eta santo erremedio! Jentilak ezin zuten ezertxo ere egin potere barik geratzen zirelako gurutzearen aurrean.

Apurka-apurka, baselizaz eta herri-elizaz bete zitzaigun gure Euskitz lurra eta kristau aroan sartu ginen bete-betea atzean uzten joanaz aurreko sineskerak.

Mari jainkosa zaharra ere baztertuta geneukan kobazuloetan, lamiak beste hainbeste euren ur ertzetako zuloetan. Basajaunak desagertu egin ziren Olentzerorekin, berba baten esanda, kristauaroak lainabera lodi baten antzera estali egin zuen sineskera zaharren mundua sorginenak luzaroago iraun bazuen ere.

Latinitzengandiko aro berri honek, eragin handia izan zuen gudan, Euskitz Euskidatz egite-rainokoa.



**A**roak aro, guk asko ikasten genuen eta gure kultura zabaltzen gindoazen ahozkotik idatzira. Kristau doktrinaz gain, idazten ere ikasi genuen, behingo baten, beharrizanak eraginda, bestela, Latinitz eta beragandiko Romantzitzek eta Frantzitzek irentsi egingo gintuzten.

Euskidatz munduan sartzeko, abedea behar genuen eta berria asmatzen alperreko beharlekua hartu beharrean, Latinitz eta Romantzitzen alfabetoa onartu genuen.

Baina, hartuak hartuta ere, arazoak genituen geure betiko Euskitz-hots batzuk idazteko, Romanztitzek ez zuelako parekorik.

Horretara, gureko maixu azkarrak, buruz belarri ekin zion gure hots bereziak alfabetoan

sartzeari. Eta ekinaren ekinaz, lortu egin zuen eta horra hor gure: dd-tt-ts-tz-x-z etab. (Maddalen, Antton, itsaso, haritz, horixe, izan...) Euskitz-hotsez ahoskatzeko.


Behin alfabetoan sartuz gero, idazten hasi ginen garaian garaiko beharrizanei erantzunez.

Hasieran, zer idatzi baino non eta zerez idatzi zen kontua baina, tira, moldatzen ginen zelanbeist.

Lehenengotako idaztietako asko eta asko galdu egin zaizkigu, eskerrak ahozkoan gorde dituguna gure izakera-bizikerak, bestela?

Romantzitz eta Frantzitzen arteko eztabaida batzuen ondorioz, Euskitz gureari muga bat jarri zioten, administrazio muga bat eta harrezkero Iparralde eta Hegoalde izena erabili behar izan dugu Euskitz beti bat izan arren.

Urteak joan urteak etorri, liburuak idazteraino heldu ginen. Ipar aldeko B. Etxeparek eman zion hasiera, eta zelako hasiera eman ere, bere olerki honen zati hau entzutea baino ez dago, nahiz eta



Latinitzen izenburua eraman liburuak, *Linguae Vasconum Primitiae*:

*Berzeak oro izan dira  
bere gobien gradora  
orai hura iganen da  
berze ororen gainera.  
Heuskara  
jalgi adi mundura!*

Latinitz eta Romantzitz gu baino aurreragotik zebiltzan baina guk euren idaztiak itzultzen ere ikasi genuen, eta zelan gainera? Ikusi bestela, J. Leizarragaren *Testamendu Berriaren* itzulpena.

Geure idaztiekin jarraituz, Bizkaitzenean, Hegoaldean, han, hor, hemen bildutako errefrau zaharren bilduma zoragarria ere argitaratu genuen *Refranes y Sentencias en Vascuence* Romantzitzen izenburuarekin agertu bazen ere.

Gerotxoagoan, Lapurtitzeneko gure Axular jakintsuak, *Gero* izeneko liburu ederra eta garrantzitsua eskeini zigun.


Ikusten denez, Euskitzenekook, bakoitzak geure erara egin arren, aurrera jo genuen B. Etxepareren “Goien gradora”ntz.

Euskidatz agirikoez gain, ezkutatuak ere bagenituen baina agertu ahala argitaratu egiten genituen. Horra hor esaterako B. Etxeparerena baino zaharragoa dugun Bizkaitzeneko A. Juan De Zumarraga Durangokoak idatzitako ha karta famatua.

Beharrizanak beharrizan, Euskitz eta Euskidatz haltza haltzaren ondoan eretzen den bezala, bata besteari deusala bizi genituen.

Egia esan, hasieran eleizgizonak genituen adituenak alor honetan eta euren katekesietarako idazten ziguten gehienetan. Eleizaz kanpokoak ere bagenituen eta oso onak gainera.

Bitzuetariko adituen artean, eta eleizgizon bat buru zela, Euskitzidatzaindia sortu zen 1918an eta ahal zuen neurrian, *Ekin eta Jarrai* lemapean hainbat eta hainbat lan egin zuen.



Aurrerapideak aurrerapide, ikastetxeak ere sortu ziren, komentu-seminarioetatik hasi eta herri eskoletarainokoak. Baina, ikastatxeetako irakatsiak erdalitzidatzez azaltzen zizkiguten eta Euskitz baztertzen hasi ziren, gauza ez dela esaten, debekatzen, zigortzen eta abar. Baina, guk ekin.

Gerra gogor bat ere igaro behar izan genuen baina handik ere aurrera. Gerra osteko diktadurapean hil eginik zegoen gure Euskitz, Romantzi-tzen menpean. Hortik ere bizirik urten genuen, asko sufritiba baina bizirik.

Urteak eta urteak igaro genituen horrela baina eutsi egin genion geureari. Garai bigunagoak etorri zirenean, Euskitz irakaskuntzara eramatea eskatzen genuen baina beti ezetza.

Irakaskuntzak Euskitzen birmoldatze bat eskatzen zigun zientziaren edozein arlo jorratzeko, eta ofizialtasunari itxaroten egon barik, egin-egin genituen aurrerakuntzak.

Mendeak aurrera egin ahala, Euskitzeneko, hango, horko hemengook elkartu eta zerbait egitea pentsatu genuen gure komunikatzeko tresna hau beharrian guztietara egokitzeke.

Pentsatu eta egin. Euskitzidatzaindia arduratu zitzaigun menester hori aurrera eroaten, borondate onez eta gogo handiagoaz.


Gogoia bai, baina gehiago behar genuen, Romantzitz eta Frantzitzen antzerako eskubidea.

Ibili bagenbiltzan hori lortzen baina betikoa, munduan beti hiru gauza soberan: "Itsasoko euria, urruneko egurra eta pobreaken arrazoia".

Ekinean-ekinean, XX. mendean gora ginela, urak irakiten hasi zitzaizkigun eta Euskitz sakabana-tua bateratu nahian edo eta beharrezkoa zela eta, Batitz sortzea erabaki zuten aditu batzuek.

Gure kalendarioko 1968 zen, Gipuzkitzenean. Hantxe elkartu zitzaizkigun orduko jakitunak eleiz-babespean eta hangoxe "laborategian" jaio zen Batitz gaztea. Eztabaida handiak izan ziren baina





botoak boto zirenez, jaio zitzaigun laborategiko Batitz hori.

Euskitzeneko seme-alaba naturalak ez ziren ondo konpontzen Batitz anaiordeareakin, artifiziala eta idaztekoa bakarrik zelako.

Bizkaitz ikaratuta zegoen, bildursatuta, Romantzitz hobeto ulertzen zuelako Batitz bere anaiordea baino. Holakorik?

Bizkaitzek arrazoi eta guztizko planteamentuak agertu zituen Euskitzen arima galdu ez egiteko. Bizkaitzetik Batitzerako bidea proposatu zuen, besteek ere beste hainbeste egiteko. Baina, ofizialtasunaren menpean, ia-ia guztiz baztertuta utzi zuten Bizkaitz eder eta aberasgarria.

Bizkaitzeneko asko eta askok, Batitz ikasi ere egin zuen baina eguneroko erabileran bereberekora jotzen zuen Herritz biziak horixe eskatzen ziolako.


Hiru hamarkada igaro eta gero, hor dabil Batitz geroago eta Batitzago, arauz beteta, ofizialtasunaren sare zabalean idazten dena ahoskatzen.

Baina non dago ha lehenagoko aberastasuna eta euskara bizi-bizia? Laborategiko Batitz horrek zertatik ez du Herritz bizia behar den aberastasunean beraganatzen?

Gure munduko bizitzan, sarri askotan ez dakigu zer egin behar dugun baina gutxienez bageneki zer egin behar ez dugun.

Bizitza aurrera doa, gaur ere oraindino Euskitz gara neurri baten behintzat, baina etorkizunean jarraituko ote dugu Euskitz osoa izaten gure Amalurrean? Hori, gure geure esku daukagu. "Denborak agertuko digu edurra mendian!" Gora Euskitz eta zahar on egin! Hala biz!





abedea: alfabetoa.

alauri: garrasi; oihu handia.

anaje: anaia.

arean: apur bat; pizka bat.

armin: minduta.

arrasti: arratsalde.

arrate: harri-atea; hesi-atea; zuloa.

artega: urduri.

ataka: ate-ahoa.

atomatu: ausartu;atrebitu.

aurbera: aldats behera.

aurgora: aldats gora.

beharleku: lana; zeregina; ekintza.

bebingo baten: arin.

berbaikunea: berba egiteko modua, era.

berbaro: jendea berbaz; murmulloa.

berbarots: jendea berbetan.

berde: haserre.

bere artean: berekautan.

bildursartua: lehenagotiko beldur kendu ezina.

bizilan: diligentzia; bizitzagatik egin.

“bonim augurium”: (latinetik) sorte ona.

bueltan-bueltan; ingurumarian.  
dager: agertzen da.  
dendik ere: dena den; dena dela.  
denodu: indarra; bizitasuna.  
duna: dun(a)  
elia: ganadu errebañua( behi, zaldi etab)  
eragon: jardun.  
fetura: ganora; itxura.  
gainetu: gainera joan.  
galera: petral.  
gaulendia: gauiluntzea.  
gesu baten: halako baten, laster.  
gogatsu: gogo handiaz.  
goiti beheiti: gora behera.  
Hala biz: hala izan dadila  
hil eginik: hiltzeko zorian.  
ilunde: iluntasun  
inizitua: oinaztargi; tximiztargi.  
inontza: ihintza.  
iragangaitza: intransitiboa.  
iragankorra: transitiboa.  
koiu: harrapatu.

kokorio: lelo; ganorabako.  
 komunstadura: konkordantzia.  
 lainabera: behe-laino.  
 laur: lau.  
 lo-arrazo: lo egin arazi; lotan jarri.  
 menester: ekintza.  
 mundurik aramaio: (esaera) mundurik zehar;  
 hortik zehar  
 oboan-oboan: inguratuz-inguratuz;  
 odolak ur egin: (esaera) oso haserre.  
 oinberdinka: oin biak batera dirala saltoka.  
 oratu: agarratu.  
 orpoetan ar barik: arin; bizkor.  
 “panta rei”: dena aldatzan da.  
 -ri deutsalara: ondo ondoan.  
 sartzamendia: mendebaldeko horizontea.  
 sorots egin: bigilatu.  
 ustiapen: explotaziño.  
 zantzo: irrintzi.  
 zelanbeist: nolabait.  
 zohi: bedar eta guztizko lur zatiak.  
 zur: egur  
 zuzian: abiadan; abantean.

*Euskal Herria, euskaldunon herria da, txikia baina osoa.  
Euskarak egin, egiten eta egingo gaitu euskaldun.  
Sorrerako euskaratik gaurko euskarara, garaian garaiko  
eta lekuan lekuko aldaketak egon dira baina euskarak  
ez du inoiz bere nortasuna galdu. Nortasun borretan  
oinarrituz, Euskitz, zaintzen, egokitzen, moldatzen,  
berritzen eta aberasten abalegindu eta abalegintzen da  
baliagarri izateko etorkizunean. Hala biz!*



**IBAIZABAL**

